

Egonaldia luzatu: Erasmus-Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk

Ikasleak erabaki ahal izango du, Erasmus, LA edo BNB mugikortasunean delarik, egonaldia luzatzea honako baldintza hauekin bat etorrita:

1. Luzatzeko akordioa eta hartu beharreko neurriak **behin mugikortasuna hasita** lortu beharko dira (inoiz ez lehenago) eta egiten ari den Erasmus, LA edo BNB mugikortasuna amaitu baino lehen.
2. Luzapena egiten ari den Erasmus, LA edo BNB mugikortasun aldia **amaitu eta berehala egin behar da. Ezin da etenik egin** (oporraldiak eta unibertsitatearen itxialdiak ez dira "etentzat" hartzen).
3. Ezelako mugikortasun aldirik **ezin izango da 12 hiletatik gorakoa izan** (luzapena barne) ez eta amaitu ere, mugikortasuna hasiko deneko ikasturteko irailaren 30etik harago.
4. **Ikasleak eskatu beharko dio UPV/EHUREN ikastegiko koordinatzaileari luzapen hori** egiteko ontzat eman dezala, ikaslearen jatorriko ikastegiak ezarriko lituzkeen baldintzak eta tramitazio epeekin bat etorrita.
5. Ikasleak **eskatu beharko dio jatorriko unibertsitateari adostasuna** adieraz diezaiola UPV/EHUREN jatorrizko ikastegiko koordinatzaileari.
6. Ikasleak **luzatu beharko du egonaldi luzatu osoa estaliko duen istripu edo gaixotasunen aurkako aseguru** poliza eta luzapen honen **kopia bidaliko UPV/EHUREN ikastegiko koordinatzaileari**. Ikasleak tramite hau egin ezean, unibertsitatea salbuetsita egongo da egonaldian gerta litekeen edozein gertakarik eragindako erantzukizun guztietatik oro.
7. Ikasketen luzapena Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programetan eskatuko luketen ikasleek **arreta berezia jarri beharko dute helburuko herrialdean legalki egon ahal izateko bide emango dizkion baimen eta dokumentuak berritzen**. Horretarako, kasuan kasuko unibertsitate zerbitzuei edo zuzenean, mugikortasuna hasi ahal izateko baimena eman zuten agintariei bidali beharko zaizkie, kontutan hartuta helburuko herrialdearen indarreko legeek ezarritako epeak.
8. Ikasleak **konpromiso akademikoa ere aldatu eta luzatu beharko du GAUR aplikazioaren bidez**, jatorrizko ikastegiko koordinatzailearen ontzat emanaz; ziurtatu beharko baitu eskatu duen luzapen aldian zehar egingo dituen irakasgaien egokiera eta bermatu egingo dituen ikasketen baliokidetzat.

GARRANTZITSUA:

Ikasleak **EZ DU INOLAKO LAGUNTZA EKONOMIKORIK JASOKO EGONALDIA LUZATZEAGATIK**. Aitortza akademikoa besterik ez du izango. Horretarako, konpromisoa hartuko du konpromiso akademikoa luzatzeko eta kontratatuko du aseguru medikua, bere ikastegiko koordinatzaileak emaniko jarraibideekin bat etorrira eta berak gainbegiratuta.